

Sagardotegietarako autobusa, azkenean martxan

Gaur jarriko da martxan txotx denboraldirako garraio zerbitzua, herriko sagardotegietara joateko. Ostiral gauetan eta larunbat eguerdi eta gauetan ibiliko da, 2 eurotan. Geltokia Donostia ibilbidean egongo da.

ASTIGARRAGA GARRAIOA

Azkenean izango da sagardotegietara joateko autobus zerbitzua, aurtengo txotx denboraldian ere. Gaur jarriko da martxan, eta ostiral gauetan eta larunbat eguerdi eta gauetan emango du zerbitzua.

Herriko sagardogileek antolatu dute garraio zerbitzua, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen babesarekin eta Udalaren laguntzarekin.

20 lagunentzako autobusa

Martxan jarriko den garraio zerbitzua autobus txiki batekin emango du. 20 lagunentzako tokia dauka, eta erabiltzaileek 2 euro ordainduko dute joan-etorri bakoitza.

Autobusa Donostia ibilbideko geltokitik aterako da, eta 11 sagardotegitan egingo du geldialdia: Artolan, Astarben, Bereziartuan, Etxeberrian, Irigoienen, Larrarten, Lizeagan, Minan,

AUTOBUS ZERBITZUA

OSTIRALETAN

Sagardotegietara joateko, 20:00-21:15.
Sagardotegietatik itzultzeko, 23:00-00:00.

LARUNBAT EGURDIETAN

Sagardotegietara joateko, 13:15-14:00.
Sagardotegietatik itzultzeko, 17:30-18:30.

LARUNBAT GAUETAN

Sagardotegietara joateko, 20:00-21:15.
Sagardotegietatik itzultzeko, 23:00-00:00.

Oiarbiden, Petrategin eta Sarasolan; hain zuzen, zerbitzua antolatu duten sagardotegietan.

Zerbitzua, ostiral eta larunbatetan

Autobus zerbitzua gaur bertan jarriko da martxan, txotx denboraldi osorako, eta ostiral



Gaur jarriko da martxan txotx denboraldirako autobus zerbitzua.

gauetan eta larunbat eguerdi eta gauetan ibili da.

Ostiral gauetan, sagardotegietara joateko 20:00etatik 21:15etako tartean ibiliko da joan-etorrian, eta sagardotegietatik itzultzeko, 23:00etatik 00:00etarakoan.

Larunbat eguerdian, 13:15etatik 14:00etara joan ahal izango da sagardotegietara, eta itzuli, 17:30etatik 18:30etara. Gauetan, berriz, 20:00etatik 21:15etara sa-

gardotegietara joan, eta 23:00etatik 00:00etarako tartean itzuli.

Elkarlanean

Zerbitzua erabiltzaileek eta sagardogileek ordainduko dute; azken hauek 10.000 euro jarri dituzte.

Kalkuluen arabera, nahikoa izango da hori. Baina ez bada, hortik gorako kostuaren %60 ordainduko dute sagardogileek, eta beste %40 Sagardunek. **K**



Hitzaldia doan, Lehen Sorospenez

HERNANI OSASUNA

Ongizatea eta Osasuna sustatzeko hainbat ikastaro antolatzen ditu DYAK. Horien barruan, gaur, doan, Lehen Sorospenez hitzaldia emango du 19:00etatik 21:00etara, Inmakulada ikastetxean. Bihar, berriz, 16:00etatik 18:00etara Bihotz-Biriketako Suspertze tailerra emango da, 6 urtetik gorako umeekin familian egiteko. Honetarako izena eman behar da 943 46 46 22an; 18 urtetik beharagoentzat doan izango da, eta helduek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

'Judy', hasteko

HERNANI ZINEA

Asteburuko zine saioak gaur hasiko dira Biterin, Judy pelikularekin. Gaur 22:30etan jarriko dute, eta astelehenera arte, ohiko ordutegian. Umeentzat, berriz, Volando juntos izango da bihar eta etzi, 16:30etan.

Plazatik, itzulia

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Hileko bigarren ostiralarekin, enkartelada egingo da preso eta iheslarien eskubideen alde. Plazatik 20:00etan abiatuko da.

Gaur arte, egur loteak eskatzeko

GOIZUETA UDALA

Etixerako su egurra nahi dutenek gaur arte egin dezakete eskaera udaletxean. Kontu korrante zenbakia eta egurra uzteko tokiaren berri eman behar da.

TO! kutxa, irekita

HERNANI GAZTELEKUA

Sexualitatea, harremanak eta tratu onen inguruan TO! buzoian utzitako galderak erantzungo dira gaur Gaztelekuan, 16:30etatik aurrera.

Hernaniko dendetako aukera onenak, Plaza Berrin

Berriak ostalari eta merkatarik jarritako Stock Azoka gaur bukatuko da. Goizez jarriko dituzte postuak Plaza Berrin, 14:00ak arte.

HERNANI MERKATARITZA

Atzo jarri zituzten Stock Azokarako postuak Plaza Berrin, Berriak, Hernaniko Merkatarik eta Ostalarien Elkarteko hainbat dendek. Gaur berriro jarriko dituzte, baina goizez bakarrik, 10:00etatik 14:00etara.

12 dendetako postuak

Denera, elkarteko 12 dendak

jarri dituzte postuak: Ilargi, Mahuka, Laket, Hiru, Balantxa etxetresnak, Valen, Hoki, Eukene, Dekolanak, Kuluska, Oinatz, eta Ibaimendik. Horietan denetik topatu daiteke: haurrentzako edota helduentzako arropa, kirol arropa, dekoraziorako gaiak, etxetresna elektrikoak...

Guztia, merke-merke, denboraldia itxi ahal izateko. Gaurkoa izango da azken eguna. **K**



Gaur goizean zehar bakarrik jarriko da Stock Azoka.

Berrikuntza: ostiral eguerdian irekita enkarguz

EULA

Kalitate handiko 4.600 sagarrondo Tolare sagardotegia Asteazkenetik larunbatera gauetz Ostiral, larunbat eta igandean eguerdian ere bai Berogailua

LATEGI AUZOA, 19. URNIETA Hernaniko Portu auzotik 5 minututara

943 55 27 44

www.eulasagardotegia.com

OINDI

taberna

NAGUSIA, 25 HERNANI

943 557 509

KRONIKAK KAZETARIA BEHAR DU AMATASUN BAJA DELA ETA

Bidali zure CV-a, otsailak 29ra arte:

kronika@kronika.eus
Dobera Euskara Elkarte Larramendi 11 behea 20.120 HERNANI

ESKATZEN DA:

- / Euskara ondo menperatzea, hitzez zoin idatziz.
- / Lantaldean aritzeko gaitasuna.
- / Iniziatiba eta enpatia.
- / Kazetaritza edo komunikazio ikasketak izatea.

BALORATUKO DA:

- / Urumea ballara ezagutzea.
- / Doberako bazkide izatea.
- / Tokiko hedabideak ezagutzea.

ESKAINIKO ZAIKO:

- / Kontratu: amatasun bajari dagokiona.
- / Eginkizunari dagokion soldata eta lan baldintzak.

Baldintzak betetzen dituztenen artean probak egin ondoren bat aukeratuko da.

GAUR Giro eguzkitsua nagusituko da. Goizean lainoren batzuk ere agertuko diren arren, eguerdirako eguzkia izango da jaun eta jabe, eta tenperatura epela izango da. **Min.10° / Max.18°**

BIHAR Eguzkia izango da jaun eta jabe zeruan, eta giroa epela izango da. Hegoaldeko haizea ibiiko da, eta arratsaldean baliteke zakartzea, eta lainoren batzuk ekartzea. **Min.9° / Max.21°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko Udala

Astigarraga Udala

Donostia Auzo Udala

GOIZUETA UDALA

ARANOKO UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEA

GIJONKO FORU ALDUNDIA

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

ELKARTEA

Mendialdeko Binakako Txapelketa martxan, Aldatz, Leitza eta Goizuetan

Goizuetan 18:00etan hasiko dira paritduak: 6 jokatu dira. Bestalde, paleta goman, hernaniarrek 20:00etan jokatu dute etxean.

HERNANI-GOIZUETA PELOTA

Helburu garbiekin, «Mendialdeko Mankomunitateko herrien pilota bultzau eta indartu, eta klubaren arteko harremana indartzeko», antolatu dute Mendialdeko Binakako I. Pilota Txapelketa. Umore Ona, Larraun, Aurrera eta Araxes klubek hartuko dute parte, gaurtik martxoaren 7ra arte.

Goizuetan gaur 18:00etan hasiko dira partiduak: umeen bi-

garren mailan, Aurrera, Umore Onako Aranberri eta Narbarteren kontra, eta Aurrera, Umore Onako Seges eta Larinen kontra. Umeen lehenengoan, etxeokak: Sagardui-Legarreta/Zurutuza-Garmendia. Kimuen bigarren mailan, Umore Onako Apeztexea Aurrerako Ugartemendiarekin, etxeok Salaberria-Ruiz bikotearen kontra, eta Aurrera, Sagardui eta Lujanbionen kontra. Azkenik, lau terdian 20:30etan ariko dira 22 urtez azpi-

koetan, Saralgei, Araitz Betelukoa, eta Umore Onako Aizkorbe.

Bestalde, Aldatzen ere jokatu dira gaur partiduak 17:30etan, eta Leitza, 20:00etan. Hor, haurren mailan ariko da Umore Onako Legarreta, Aurrerako Sagastibeltzarekin.

Hernanin palan, haur eta heldu Hernanin, 8 urtetik gorako umeek pala probatzeko aukera izango dute gaur ere, hileko ostiralero bezala, 16:45etatik 17:45etara, Tilosetan.

Bestalde, 2garren mailako mutil nagusiek etxean jokatu dute, 20:00etan, Kukuren kontra. **K**

Neska-mutilen heziketaz, jardunaldia

Biterin, bihar, 09:30etatik 12:30etara ariko dira Sancho, Wolfram eta Egizabal.

HERNANI LANGILE

Haurren heziketaren inguruko jardunaldia antolatu du Langile ikastolak biharko, 09:30etatik 12:30etara, Biterin. Neskak eta mutilak berdin hezten ote diren aztertuko dute, sexualitate aipatuta, Clara Wolfram, berdintasunean aditua, eta Nerea Sancho, sexologoa. Ondoren, *Klownklusioak* aterako ditu Bea Egizabal klownak.

Saioa irekia izango da, euskeraz, eta itzulpen zerbitzua emango da. Zaintza zerbitzua ere izango da, baina izena eman behar da: 688 869 395. **K**

Haur-jolasak faltan, Ave Maria ondoan

HERNANI GALDUTAKOAK

Pasa den igandean bi haur-jolas galdu ziren Ave Maria ondoan dagoen tirolina parkean. Jolas bat imanezko mundu batena zen, eta bestea, berriz, *Frozen* kartak. Berrerrabiltzeko poltsa batean zeuden sartuta. Aurkituz gero, telefono honetara deitu: 618 328 906.

Haurdunek izena, gaur arte

HERNANI BERDINTASUNA

Otsailaren 19tik ekainaren 17ra arteko 15 asteazkenetan haurdunaldi tailerra emango da Biterin, 18:00etatik 20:00etara, Berdintasun Kontseiluak antolatuta. Gaurkoa da izena emateko azken eguna: berdintasuna@hernani.eus, 943 33 70 17 edo Plaza Feminista.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

JOXE MARI AUZMENDI MATXAIN

Mila esker Joxe Mari

HERNANIKO HEZKUNTZA PLATAFORMA

Hernanin, 2020ko otsailaren 14an

JOXE MARI AUZMENDI MATXAIN

Eskerrik asko, Joxe Mari. Guretzako ejenplu bat izan zara.

ETXEKO BIZILAGUNAK

Hernanin, 2020ko otsailaren 14an

JOXE MARI AUZMENDI MATXAIN

Besarkada bat etxekeoi

MAIALENEN LAGUNAK

Hernanin, 2020ko otsailaren 14an

JOXE MARI AUZMENDI MATXAIN

Atzo hil zen, 66 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Amesten degun bakoitzean izango gera zurekin -

Emaztea: Gloria Sarasa; alabak: Maialen, Izaro eta Olaia; anai-arrebak: Andoni (†) eta Mari Carmen, Julian eta Espe, Mariaje, Iñaki eta Lupe, Lurdes eta Joserra, Maribi eta Josu, Jon eta Loli; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Gonbidatzen zaituztegu **BIHAR, LARUNBATA**, goizeko **BEDERATZIETAN, POLLOEKO ERRAUSTEGIAN** egingo den agurrera. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko otsailaren 14an

OHARRA: Gorputza **HERNANIKO ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN** egongo da gaur, ostirala, gaueko 21:00ak arte.

JOXE MARI AUZMENDI MATXAIN

Iluntasunak ez du zentzurik bertan argirik ez bada, gurekin betiko zure indarra eta irriparra.

OLAIAREN LAGUNAK

Hernanin, 2020ko otsailaren 14an

JOXE MARI AUZMENDI MATXAIN

Izaro gure lankidearen aita eta hamaika lagunen abenturatan bidelaguna. ESKERRIK ASKO gugan erein duzun guztiagatik Besarkada sentitua senideei.

ARREMANITZ KOOPERATIBA

Hernanin, 2020ko otsailaren 14an

IRAGARKI MERKEAK

LOGIKALINE enpresak HARRERAKO

LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Frantsesa eta ingelesa eskatzen dira. Lana luzerako da. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA

LANPOSTU bat bete behar du. Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta ingelesa eskatzen dira. Lanaldi osoa eta luzerako. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

Esperientziadun neska euskaldunak

goizetan lan egingo luke etxeak garbitzen, umeak edo helduak zaintzen... **Deitu: 637 394 893**

Martxan dagoen okindegia alokagai.

Interesatuak deitu: **644 319 054**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Aisialdia, jai kapitalista eta festa eredu

Aisialdia, denbora libre, festa... zer dago itxurazko askatasuna iradokitzen duten kontzeptu horien atzean?

Libreki antolatu al dezakegu gure denbora libre? Zer ospatzeko egiten dugu festa? Ba al dakigu jai eredu kapitalistatik kanpo harremantzen?

Urteak daramatza Hernaniko gazte asanbladak autogestioan oinarrituriko aisialdirako eremuak sortu eta dinamizatzen. Kapitalismoak, ordea, badu bere baitan haren aurka antolatu den hori xurgatu eta asimilatze gaitasuna. Berdina pasa al zaigu Hernanin? Jakin al dugu kapitalaz gaindiko aisialdi eredurik sortzen?

Olinpiadak, Solstizio jaietako egitarau alternatiboak, gaztetxeko urteurrenak... inork esango

du badugula eredu non finkatu zehaztuko digun aurrekari ego-kirik. Militanteon eginbeharra, ordea, egindako horren gaineko errebisioa egitea da. Ongi eginak egiten jarraitu eta akatsak ez errepikatze.

Horregatik eta horretarako, aisialdi eta jai eredu kapitalistaren gainean hausnarketa iraunkor bat ematea proposatzen dugu. Egungo jai ereduaren nolakotasunaren aurrean neurriak hartu eta gure beharrak aseko dituen jai eredu bat antolatzen hasteko, otsailaren 14an gaztetxean antolatu dugun eztabaidan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Hau hasiera besterik ez da! Autogestioa eta borroka!

Aingeru Otxotorena Uralde
Hernaniko Gazte Asanblada

Oindiri bira helduek, igandean

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Izena eman beharrik gabe, igandean Oindiri bira egiteko aukera izango da Mendiriz Mendirekin, 08:30etan Plazatik aterata.